



Lapurdum

Revue d'études basques

24 | 2023

Numéro XXIV

MAIN euskalduna: haurren kontaktetan adinak eta ingurune soziolinguistikoak duten eragina neurtzeko tresna

Maria José Ezeizabarrena et Aroa Murciano



Édition électronique

URL : <https://journals.openedition.org/lapurdum/4453>

DOI : 10.4000/127tx

ISSN : 1965-0655

Éditeur

IKER

Édition imprimée

Date de publication : 14 décembre 2023

Pagination : 141-155

ISBN : 978-2-9590077-1-2

ISSN : 1273-3830

Référence électronique

Maria José Ezeizabarrena eta Aroa Murciano, «MAIN euskalduna: haurren kontaktetan adinak eta ingurune soziolinguistikoak duten eragina neurtzeko tresna», *Lapurdum* [Linean], 24 | 2023, Sarean emana—an 01 juillet 2024, kontsultatu 18 octobre 2024. URL: <http://journals.openedition.org/lapurdum/4453> ; DOI: <https://doi.org/10.4000/127tx>



The text only may be used under licence CC BY-NC-ND 4.0. All other elements (illustrations, imported files) are "All rights reserved", unless otherwise stated.

MAIN euskalduna: haurren kontaktetan adinak eta ingurune soziolinguistikoak duten eragina neurtzeko tresna

MARIA JOSÉ EZEIZABARRENA (UPV/EHU)

AROA MURCIANO (UPV/EHU)

Laburpena

Ikerketa honetan 4-8 urte bitarteko 72 haur nafarren ahozko ipuin-kontaktak aztertu dira MAIN tresnaren euskarazko bertsioa baliatuaz, ondoko helburuekin: batetik haur kontalarien *autonomia* eta kontatutako ipuinen luzera eta konplexutasun narratiboa neurtzea, eta bestetik, aldagai horietan adinak eta ingurune soziolinguistikoak duten eragina behatzea. Hiru adin-talde bereiztu dira: 5 urteko, 6 urteko eta 7 urtekoak deiturikoak eta bi ingurune soziolinguistikoaren araberakoak: ingurune euskaldunekoak eta ingurune ez euskaldunekoak. Adinari dagokionean, alde esanguratsuak aurkitu dira erabilitako hiru neurgaietan, talde gazteena eta bi zaharragoen artean, baina ez 6 urteko eta 7 urtekoen artean. Ingurune soziolinguistikoaren eragina, berriz, 5 urteko taldean bakarrik agertu da, ingurune euskaldunetako haurren alde hiru neurgaietan. Emaitzek ipuinen kontaktetan haur hezkuntzatik lehen hezkuntzara bitarteko jauzia ageri dela erakutsi dute, eta MAIN euskalduna jauzi horren ebaluazio kuantitatiborako tresna egokia izan daitekeela.

1. Sarrera

Haurren hizkuntza garapena deskribatzeko ahalegin nabariak egin dira Euskal Herrian azken hamarkadetan. Esparru horretan ezagutza zabala garatu bada ere, gizarte aldatzen joan den heinean behar eta erronka berriak sortu dira. Azken aldian argi gorriak eta abisu seinaleak piztu dira euskararen ikaskuntza eta erabilerari dagokionean, haurren hizkuntza garapena neurtzeko tresnen garrantzia eta beharra ageriagoan jarri dutenak. Eskola-umeez dituzten hizkuntza-zailtasunetan era eraginkorrean esku-hartzeak, aldeztu aurretik zailtasun zehatzak zein diren, zertan diren eta zein adinetan gainditzen diren antzematea eskatzen du. Horretarako, hizkuntza-garapena neurtzeko tresnak garrantzizkoak dira, haur

txikien zailtasunak identifikatuaz, beharra duten haiekin esku-hartze ahalik eta goiztiarrena abiaraztea ahalbidetu dezaketelako, geroagoko zailtasun larriagoak ekiditeko moduan. Bestetik, hizkuntza beharrak eta klabeak identifikatzeko tresnekin lortutako emaitzak euskararen eta euskarazko ikaskuntzarako lagungarriak direlako.

Ikerketa hau MAIN edo *Multilingual Assessment Instrument for Narratives* (Gagarina et al. 2019) tresnan oinarritzen da, berez, narrazio laburrak ulertzeko eta ekoizteko trebetasuna neurtzeko sortu zena. Kapituluaren zehar, MAIN haur euskaldunen ahozko kontaketa jasotzeko eta adinaren arabera garapena azaltzeko erabilgarria den aztertzen dugu, tresnarekin Nafarroako eremu linguistiko euskaldunean eta beste eremu ez horren euskaldunean jasotako 4-8 urte bitarteko haurren kontaketa baliatuaz. Lan honen berritasun nagusia MAIN tresnaren euskarazko bertsioa erabiltzearena da, eta tresna hori baliatuaz adin eta ingurune soziolinguistiko desberdinetako haur euskaldunen emaitzak jaso eta alderatzeko aukera. Ikerketaren helburuak honakoak dira: MAIN tresna baliatuaz, a) 4 eta 8 urte bitarteko haur kontalarien *autonomia* narrazioa neurtzea, b) kontatutako ipuinen luzera eta konplexutasun narrazioa neurtzea eta c) aldagai horietan adinak eta ingurune soziolinguistikoak duten eragina behatu eta ezagutaraztea. Sarrera honen ondoren (1. atala), kontaketa gaineko atala dator (2. atala), eta metodologiarena, hurrena (3), parte-hartzaile, material-prozedura eta emaitzekin. Eztabaida eta ondorioak barne hartzen dituen atala da azkena (4. atala).

2. Kontaketa

Kontaketa ahozko hizketa-egintza konplexua da. Hasteko, bi motatako parte-hartzaile izatea eskatzen du, *hiztunarena* eta *entzulearena*, errol banaketa argiarekin, eta parte-hartze asimetrikoarekin. Normalean, ipuin-kontaketa saioan kontalariak jardun duen bitartean ez da espero izaten entzulearen hitz bidezko parte-hartze handirik, hiztunaren jarduna inork eteterik. Kontaketa barruan ahots asko egon badaitezke ere, kontaketa saio jardura hitzun bakarreko jardura monologala izaten da, hasieratik bukaeraraino hitz-txanda bakarrean gauzatzea espero dena. Isileko arau onartu multzo batek antolatuta dagoen ekintza da, testuinguru komunikatibo jakin batzuetan, modu laxoan aplikatu badaitezke ere.

Ipuin-kontaketa ahozko arte-lan zoragarriak sortzeko jardura da kontalari trebean ahotan, jendaurrean egiteko prestatutako ekitaldietan, eta kontalariak (handi zein txiki, profesional zein ez) atseginerako sormen egintza askatzailetzat edo eredugarritzat hartzen duenean. Konta-saio bakoitza, ale, testu partikular bat da, testu-genero batekin identifikatu daitekeena (Bronckart 1996, Diaz de Gereñu 2016), nagusiki, narrazioarekin. Gogora dakarzkigu Punarok (2018) Laboy, Waletzki eta Ochs bezalakoek esanak narrazioa artikulazio tenporala duen esaldi segida ekoiztea dela dioenean eta, bestalde, kontaketa esanahiak sortzen dituen jardura izanik egilea, artista, eta emaitza, artelana bihurtzen dituela. Bat dator ideia horiekin Garcia-Azkoagak eta Diaz de Gereñuk (2021) diotena, baina aipatu beltzez nabarmendu duguna izango da eztabaidan berrartuko dugun ideia (1):

1. "Narrazioa prozesu bat da eta narrazten dena baino garrantzitsuagoa da nola narrazten den. Horrek esan nahi du narrazio atalak osatu egiten direla, adibidez, iruzkin eta ebaluazioarekin."

[...]. Entzulea ... limurtu, jostatu... [...] irakurle-entzulearekin koeraikitzen den diskurtsoa dugu [...] aldi oro egoera komunikatiboa ezaugarritzen den **baldintza komunikatibo partikularren mende...**” (Garcia-Azkoaga & Diaz de Gereñu 2021: 152).

Kontakteta sozializatzeko eta hezkuntzarako tresna garrantzizkotzat ere hartu izan da (Hess & Auza 2013, Barriga 2002, Snow & Imbens-Bailey 1997). Baina baldintza komunikatiboak horren garrantzizkoak izanik, kontaketa (ko-)eraikitako ahozko testua erabat alda daiteke, adibidez, kontalariak, berak nahita egiten duen konta-saio batetik, nolabaiteko datu-bilketa baten barruko jarduera izatera pasatzen denean. Bigarren kasuan helburua, hizkideen arteko errol-banaketa, espazioa, sormen-askatasunerako baldintzak oso bestelakoak dira, eta ekoizitako testuaren ezaugarriak oso urrun egon daitezke jende aurreko kontaketa deskribatu izan diren baldintza (ideal)-etatik. Hasteko, kontaktaren *funtzioa* erabat aldatzen da norbaitek (lagun batek, publikoak) kontalariari ipuina, festa giroan, kontatzeko eskatu ondorengoa izan, atseginerako, edo hizkide batek (irakasleak) eskea baino gehiago agindu/instrukzio baten erantzuna denean. Sortutako elkarrekintza ere ez da konta-saio baten antzekoa, kontakteta eskolako ariketa modura gertatzen bada. Horrelako testuinguruak ez du bermatzen kontalari-ikaslearen ahozko testua “deskripanetako” narrazio ereduak izango denik, baina prozedura egokia izan daiteke, antzeko baldintzetan jasotako haur askoren kontakteta laburren lagina jasotzeko, oso baliozkoa izango dena haurren trebetasun narratiboan eta hizkuntza-garapen urrats batzuk sakonago ezagutzeko.

Berdin alegiazkoa (ipuina) zein egiazko pasadizo batena izan (errelatoa), kontaktak ahozko narrazio testu bat izaten du emaitza. Testu horrek entzulearengan pertsonaiaren bat edo batzuk irudikaraziko ditu, edo pertsonaia batzuk, gertaera banatan edo gehiagotan parte hartzen dutenak. Pasadizo baten kontakteta jarduera informal eta ohikoa izaten da edozein giza-gizartean. Ipuin kontakteta, berriz, jarduera mugatuagoa, egitura eta testu-inguru zehatzagoa eta ez horren ohikoa. Gurea bezalako gizaratean testuinguru komunikatibo ohikoena ipuin-kontalari bakarrarena izaten da, irudidun liburu bat inguruan duela eta entzulegoaren aurrean edo ondoan solasean. Igorle-*hiztuna* heldua (edo zaharra, haurrentzat) eta entzulea, gehienetan haurra, askotan bakarra (etxean edo bere gelan, oheratzerakoan, adibidez) eta beste askotan, taldean (ikasgelan, bestelako konta-saioren batean).

Ipuinik sinpleenarenak ere, hasiera, korapiloa eta amaiera izan ohi ditu, baina modu askotan antolatuta eta kontatu daitezkeenak. Kontaktak, entzundakoa arretaz entzun eta irudikatuzko gaitasuna eskatzen du entzulearen aldetik. Eta kontatzailearen aldetik, berriz, gertaerak hurrenkera jakin batean antolatuta eta modu koherentean aurkezten dituen ahozko testua osatzeko gaitasuna, bere ustez, entzuleak dakiena edota espero duena kontuan izanda. Ipuin-kontakteta (entzule bezala behintzat) haurrentzat atsegina izaten den jarduera da, gainera, eta arrazoi horiengatik guztiengatik, ez da harriztekoa haurren hizkuntza eta komunikazio gaitasuna neurtzeko prozeduretako bat izatea. Baina haur askok ez dute ipuin-kontalari bezala jarduteko aukera izaten, eskolatutako haur guztiek etxean edota eskolan ipuinak entzun edota ipuin-liburuak ikusi badituzte ere.

Halere, ipuin kontaktak garapen kognitiboa eta linguistikoa neurtzeko baliabide

egokitzat hartu izan dira psikolinguistikan, aukera ematen dutelako hizketa-datu egokiak haurren zenbait trebetasun neurtzeko: kontaktaren plangintza antolatzekoa (jarduera kognitiboa) eta edukiak testuratzeko hizkuntza-baliabideak erabiltzekoa (jarduera linguistikoa), besteak beste. Ugariak dira, adibidez, *Frog Story* 'Igelaren ipuina'-ren irudiliburuarekin dozenaka hizkuntzatan jasotako kontaktetan oinarritutako ikerlanak, baina era askotako material eta prozedura erabili izan dira, erakutsi dutenak, koskortu ahala, hurrek testu osatuagoak, konplexuagoak, kohesionatuagoak ekoizten dituztela (Dolz, Pasquier & Bronckart 1994), 11 urterekin oraindik erabat heldu gabe badaude ere (Bilbao & Ocio 2005).


Euskal Herrian ikerlan mordoska dugu hurrek ahoz eta idatziz kontatutako ipuinetan oinarritutako ikerketak, Hegoaldean (Garcia-Azkoaga et al. 2009, 2015, Manterola 2010, Manterola & Almgren 2016, Garaio 2022, Huarte 2022), zein Iparraldean (Lascano 2016, Duguine & Köpke 2018). Esate batera, alde nabarmenak erakutsi dituzte, 5 urte, 8 urte eta 11 urteko haurren *Mattin Zaku* ipuinaren birkontaktetan, haurren intentzio komunikatiboari, autonomiari, ipuinaren egiturari, konplexutasun narratiboari, koherentziari eta testuratzeko baliabideen erabilerari dagokionean (Garcia-Azkoaga et al. 2009, 2015, Manterola 2010, Manterola et al. 2013, Lascano 2016). Bestalde, *Mattin Zaku* ipuinaren birkontaktetako edota *Igelaren* ipuin kontaktetako datuek aukera eman dute goizago eta beranduago bereganatu ohi diren gramatikako osagaiak identifikatzeko ere, eta euskara jaiotzatik eta eskolaren bidez bereganatua duten haurren artean dauden antzekotasun eta aldeak aztertzeko ere bai (Ezeizabarrena et al. 2009, Duguine & Köpke 2018).

3. Metodologia

3.1 Parte-hartzaileak

Lagina D ereduko ikasle diren 4 eta 8 urte bitarteko 72 haur nafar euskaldunek kontatutako ipuinek osatzen dute, bi alditan, bat Bortzirietan (eremu euskalduna) eta bestea Iruñerrian (eremu mistoa) gauzatutako datu-bilketa saioetan. Batzuk etxetik euskaldunak izanik euskara beren lehen hizkuntza dute, eta beste batzuek euskara etxetik kanpo bereganatua dute, baina oso txikitatik, eta euskara eguneroko (bigarren) hizkuntza egin dute hezkuntza-sistemaren bitartez. Ingurune soziolinguistikoa ere ez dute berdina parte-hartzaile guztiek, Bortzirietako haurrak (n=22) 3.000 baino txikiagoa den komunitate euskaldunean bizi dira, eta euskara erabiltzeko aukera dute, egunero, etxetik eta eskolatik kanpo ere. Iruñerrikoak (n=22), berriz, ingurune erdaldunean bizi dira, euskaldunak %12,4 diren hiriburuko metropoli-inguruan.

Nafarroako Foru Erkidegoan *eremu* terminoak esanahi zehatza du, euskal biztanleria batez beste %15ekoa den lurralde honetan. Administrazioak hiru eremu soziolinguistiko bereizten baititu: eremu *euskalduna* (biztanle euskaldunak %60), *mistoa* (euskaldunak %10) eta *ez-euskalduna* (euskaldunak %2). Ikus Nafarroako Gobernua (2020). Erabilera datuei dagokienean, haurrena da euskara gehien erabiltzen duen adin-taldea (%8,6), gazteena hurrena (% 6,6) eta helduena azkena (Soziolinguistika Klusterra 2017).



1.Irudia: Nafarroako eremuen mapa. Iturria: Wikimedia Commons.

Jasotako lagina hiru adin-taldetan banatu dugu, *5 urteko* (4 urteko haur batzuk barne), *6 urteko* eta *7 urteko* taldeak (8 urteko batzuk barne) deitu ditugunak (1. Taula). Adin-taldeak ez dira neurri berekoak, baina denek dituzte 15etik gora haur. Ingurune soziolinguistikoaren arabera bi talde bereiztu dira: ingurune euskaldunekoak eta ingurune ez euskaldunekoak. Multzokatze honetarako haurrak bizi diren eremu soziolinguistikoa izan da irizpide, eta ez, haurrak guraso euskaldunen ume diren edo ez. Halere, eremua eta etxeko hizkuntzak bat datoz askotan, eremu euskalduneko haur gehienek guraso bat edo biak euskaldunak baitzituzten eta eremu ez-euskalduneko gehienek, bi gurasoak erdaldunak. Ingurunearen arabera banaketa azpitaldeak ere ez dira kopuruz berdinak, eremu mistoko azpitalde guztiak baitira eremu euskaldunekoetakoak baino handiagoak.

ADINA	N	Ingurune soziolinguistikoa	
		Ez-euskalduna	Euskalduna
5 urte (4-5, batez beste 5;0)	16	8	8
6 urte (batez beste 6;06)	32	23	9
7 urte (7-8, batez beste 7;08)	24	19	5
GUZTIRA	72	50	22

1.Taula: Laginaren ezaugarriak

3.2 Prozedura

Datu-bilketa 2018ko uztailean egin zen, eremu euskaldunean, eta 2020ko negu-udaberrian eremu mistoan. Ipuin-kontaketa hizkuntza garapena neurtzeko datu-bilketa zabalago baten barruan kokatzen da, zenbait ariketa laburrez osatutako froga-sorta baten azkeneko ataza bezala. Haurren kontaketak banaka jaso ziren, hots-grabagailua erabilia, haurra eta ikertzailea, biak bakarrik aritu ziren eraikin publiko bateko gela isil (samar) batean. Haurren familiei ikerketaren eta prozeduraren berri aldeztetik emana zitzaizen eta parte-hartzeko adostasun orria sinatuta ekarri zuten haurrek bakarrik hartu zuten parte.

MAIN tresnaren *katuaren* ipuinerako materialak erabili ziren, eskuliburuan adierazitako *kontaketa* modalitateari dagozkion kontsigna eta prozedurak jarraituaz (Gagarina et al. 2019), irudiak aurkezteko moduari dagozkion aldaketa txiki bat izan ezik: kasu honetan 6 irudiak batera erakutsi zitzaizkien haurrei, istorioa osotasunean ikustea lagungarria izan zitekeelakoan, eskuliburuak irudiak binaka erakutsi behar direla dioen arren. Irudiak patxadaz begiratzeko esan, eta kontatzeko prest zeudenean, ipuina kontatzeko. Ikerlariak ahalik eta gutxien hitz egiteko agindua dator prozeduran, parte-hartzaile guztientzat berdina izan dadin, beti ere haurraren erosotasuna zainduaz. Hala, beren kasa ariketa egiteko gauza izan ziren haurren kasuan ikertzailea isilik egon zen. Isilik gelditzeko edo/eta galderak egiteko joera izan duten haurren kasuan, ikerlariak haurraren hitzartzea sostengatzeko ezinbestekoa bakarrik esan zuen (“mm... bai” “eta gero?”), baina kontaketarako laguntza izan daitekeen hitzik esan gabe.

3.3 MAIN: Konplexutasun narratiboa neurtzeko tresna

MAIN “*Multilingual Assessment Instrument for Narratives*” (Gagarina et al. 2012, 2019) narrazioak ebaluatzeko tresna da. Egun 90etik gora hizkuntzetara dago jada itzulita. Euskarazko bertsioa lehen egileak egin zuen 2020an. Materialak (irudiak, gidioak, kontsigna jarraibideak, puntuazio-protokoloak) eskuragarri daude (<https://zaspil.leibniz-zas.de/issue/view/53>). MAIN tresnako lau istorietako bakarra erabili da ikerketa honetan: *Katua*-rena, eta prozedura, *kontaketarena*. Materiala sei irudiko irudi-sekuentzia bat da (2. Taula), hiru gertaerako istorioa osatzeko diseinatuta dagoena (2).

- (2) a. katuak tximeleta harrapatu nahi eta ihes egiten dio
 - b. arrantzatik datorren mutikoak sustoa hartu eta dakarren baloia uretara alde egiten dio
 - c. mutikoa kainaberarekin baloia berreskuratzen saiatzen den bitartean, katuak arrainak ostutzen dizkio

Gertaera bakoitzak bost osagai ditu: abierako barne-egoera terminoa (3a), helburua (3b), saiakera (3c), emaitza (3d) eta erreakziozko BET (3e).

- (3) a. Abierako barne-egoera terminoa (BET): Adib. *Katua gosetuta zegoen*
 - b. Helburua. Adib. *Tximeleta harrapatu nahi zuen*
 - c. Saiakera. Adib. *Salto egin zuen*
 - d. Emaitza. Adib. *Tximeletak alde egin zuen*
 - e. Erreakziozko BET. Adib. *Katua triste /goseak... gelditu zen*

MATERIALAK	GERTAERAK	ADIBIDEAK
1 irudia	Sarrera	Behin / ... Laku batean...
1-2 irudiak	1. Gertaera BET Helburua Saiakera Emaitza BET	Katua Zer/ nola sentitu asmoa hasi harrapatu ez Zer/ nola sentitu
3-4 irudiak	2. Gertaera BET H S E BET	Mutikoa Zer/ nola sentitu Baloia hartzea Ateratzen hasi Baloia atera Zer/ nola sentitu
5-6 irudiak	3. Gertaera BET H S E BET	Katua Zer/ nola sentitu Arraina jatea harrapatu arraina jan pozik

2. Taula. Katuaren ipuinaren egitura.

Konplexutasun narratiboaren neurgai bat baino gehiago badaude ere, MAIN A17 da gure lanerako erabilitakoa. Goragoko taulako osagai guztiak dituen kontaketa 17 puntu jasotzen ditu, puntu bat gertaera bakoitzeko osagaiko, 15 puntu, eta bi puntu gehiago kontaketa hasieran denbora (*Behin batean...*) eta lekua (*laku baten ondoan...*) adieraziz geroz.

3.4 Aurreikuspenak

Lanaren helburua haur euskaldunek ipuinak kontatzerakoan duten autonomia, eta osatutako ahozko testuen konplexutasun narratiboa neurtzea izanda, hiru neurgai osatzen duten analisi kuantitatiboa: 1) kontaketa luzera (hitz-kopurua), 2) kontaketa behar izandako hitz-txandekopurua, eta 3) konplexutasun narratiboa: MAIN A17 puntuazioaren bidez neurtuta. Neurgai horietako bakoitzean adinak eta ingurune soziolinguistikoak eragina duten ere begiratu da.

Prozedura azaldu bezala, haurren kontaketa ikertzailea eta haurren arteko

elkarrizketa luzeago baten barruan kokatzen denez, lehenengo egitekoa kontaketa dena eta elkarrizketa izan dena bereiztea da, eta prozedura metodologiko zehatza erabili da neurgaia mugatzeko. Bestelako hitz txanda eta hitzak albo batera utzi dira, hala nola, hasieran kontsigna ematerakoan eta kontaketa amaitu ondoren esandakoak, kontaketari ekarpena egiten ez dizkioten hitz-hartzeak, haurraren ekoizpena ikertzaileak esandakoaren errepikapena denean, edo bai/ez erantzuna denean. Horretaz gain, makulu eta errepikapenei dagokienez, zenbatu dira 1-2 makulu edo/eta errepikapen kasu bakoitzeko. Azkenik, hitzen %15-20 erdarazkoak zituzten kontaketak ikerketa honetatik kanpo utzi dira.

Hizkuntzarekiko esperientziak baliabide linguistikoen erabileran eragina duenez, a. Adinaren eragina antzematea espero da, neurgai guztietan, eta aldeak aurkitzea, hiru neurgaien batez bestekoetan, haur gazte eta zaharragoenen artean. Bestela esanda, adinarekin batera kontaketen luzera -eta A17- balioek gorantz egitea espero da eta hitz-txanden kopuruak, berriz, beherantza egitea, hitz txanda bakarreko balioetara hurbilduz.

b. Hizkuntzaren, eta bereziki hizkuntza gutxituaren bereganatzean inguruak eragin handia duenez (Barreña et al. 2008A, b, Gathercole & Thomas 2009) emaitza hobeak espero dira hiru neurgaietan ingurune euskalduneko haurren kontaketatetan.

5. Emaitzak

Orokorrean, haurren jarrera oso lasaia izan zen eta pozik egin zuten ariketa. Aurreko ariketen ondoren nekea erakutsi zuten haur batzuek, txikienek batez ere eta hori izan da, haur txikienen taldeak parte-hartzaile gutxiago izatearen arrazoia. Ikus 1. Taula. Kontaketak era askotakoak izan ziren, denak laburrak (1-5 minutukoak). Haur batzuk, gai izan ziren ipuina hasi eta bukatu, batere laguntzarik gabe egiteko, hitz-txanda bakarrean. Beste batzuek, berriz, txanda gehiago behar izan zituzten, eta ikertzaileak “bultzata” (4) edo lagunduta (5) lortu zuten kontaketa amaitzea. Kontalari batzuek isiltasunarekin edo gorputzarekin adierazi zuten amaitu zutela, eta beste batzuek, berriz, “amaitu da”, edo “yasta” esanez. Bi haurren (Le18-11k eta JLi20-43) kontaketa adibideak ikus daitezke (4) eta (5), hurrenez hurren.

(4)

Le18-11 Haurra: *katua tximeleta [...] harrapatu nahi du*

Ik: mm, eta gero?

H: *Mutila etortzen da*

Ik: eta zer pasatzen da?

H: [...]

Ik: zer pasatzen da hemen?

H: *joan dela*

Ik: mmm, eta zer pasatzen da baloiarekin?

H: *urera bota duela...*

Ik: eta gero?

H: *katu bat arraia hartu duela*

(5)

JLi20-43 **Haurra:** *Katua ikusi du tximeleta eta nahi du harrapatu. Etortzen da mutila eta baloia eskapatzen zaio, eta ezin du hartu, baino gero, ideia bat okurritu zaio eta hartu du...*

Ik: Kaiñabera


H: *Kaiñaberarekin eta, eta gero, hartu du, hartu du arrainak eta katua jan ditu*

Ik: Ujum...

Beltzez nabarmendutako testua izan da gure neurgaia, eta ondokoak (4/5) adibideetako neurriak: hitz-kopurua, 18/41 hitz; 5/2 hitz-txanda eta 4/7 puntu A17 konplexutasunean. Haur bakoitzaren neurketak adin bereko taldetan batu, eta hiru adin-taldeetan kalkulaturako batezbestekoak dira ondoko irudietan erakusten dena.

Luzera. Kontaktetako hitz-kopuruen gainean kalkulatu da luzera eta 1 grafikoan ikus daitezke. Lerro etenak ingurune soziolinguistikoak bereiztu gabe (*guztira* lerroa) kalkulaturako batezbestekoak adierazten ditu: luzera nabarmen aldatzen da adinarekin: 35 hitz inguruko kontaktetarako 5 urteko taldeak, batez beste, eta koskorragoek, berriaz, 17 hitz luzeagoak. Analisi estatistikoak adinak eragina duela erakutsi du, eta eragin handia gainera ($p = 0,006$, $\eta^2 = 0,14$). Baina adin-taldeen arteko aldeak ez dira denak berdinak: aldeak haur txikienean eta gainerako bi taldeen artekoak bakarrik baitira esanguratsuak ($p < 0,02$), ez, ordea, 6 eta 7 urteko taldeen artean ($p > 0,1$).


Gainerako bi marrek, ingurune soziolinguistiko banatako haurren batez bestekoak erakusten dituzte. Aldeak ageri dira adin-talde txikieneko haurren kontakteten luzeran: ingurune euskaldunetako 4-5 urtekoen kontaktetarako 12 hitz luzeagokoak baitira, batez beste, ingurune ez euskaldunetakoak baino, baina lagin osoa kontuan izanda ez dago alderik bi ingurune soziolinguistikokoaren kontakteten luzeran ($p > 0,1$).



2. **Irudia.** Kontakteten luzera adinaren eta ingurune soziolinguistikoaren arabera.


Autonomia. Hitz-txanden kopuruak kontalariak hizketa-egintza zehatza solaskideari laguntzarik eskatu edota harengandik laguntzarik jaso gabe hasi eta bukatu, era autonomoan egiteko gauza izatearen neurgaietako bat da. Hiru adin-taldeetako emaitzen batez bestekoa ia 3 txandakoa izan da (2,93 txanda). Hitz-txanden kopurua nabarmen aldatu da adinarekin ordea: batez beste, ia 6na txandakoak izan dira 5 urteko taldekoen kontaketak (5,9 txanda), eta 2 txandakoa, berriz, bai 6ko zein 7 urteko taldekoen batez besteko kopurua. Adina esanguratsua atera da ($p < 0,001$), gainera, eta efektu handikoa ($\eta^2 = 0,45$) lagin osoan. Aldeak aurkitu dira adin-talde txikiena gainerako bi talde zaharragoenen emaitzekin alderatuta ($p < 0,001$); alderik ez da aurkitu, ordea, 6 eta 7 urteko, bi adin-talde zaharrenen artean ($p > 0,1$).

Ipuina kontatzeko behar izandako hitz-txanden kopurua berdintsua izan da ingurune euskalduneko eta ez-euskalduneko ipuin-kontaktetan, eta hiru adin-taldeetan, 1. grafikoan ere ikus daitezkeen bezala. Analisi estatistikoetan ez da aurkitu alde esanguratsurik lagin osoan ($p > 0,1$).



1. Grafikoa. Hitz-txanden kopuruak, batez beste, adinaren eta ingurune soziolinguistikoaren arabera.

Konplexutasun narratiboa MAIN A-17 puntuazioaren arabera kalkulatu da. Hiru adin-taldeetako puntuazioen batez bestekoak 2. grafikoan ikus daitezke, lagin osoko emaitzenak (Guztira izeneko lerroan), eta baita ingurune soziolinguistikoaren arabera banatu ondorengoak ere, ingurune euskaldunetako haurren kontaketenak, eta ingurune ez-euskaldunetakoak. Haur guztienak kontuan izanda, lagineko A17 puntuazioaren batez bestekoa 6,43 puntukoa da. Puntuazio baxuena haur txikienean izan da (4,3 puntu), altuagoa 6 urtekoena (6,7 puntu), eta altuxeagoa 7 urtekoena (7,5 puntu). Adinaren eragina esanguratsua atera da lagin osoa kontuan izanda, eta haren efektua handia ($p < 0,001$, $\eta^2 = 0,36$), baina talde gazteena da beste bietatik bereizten dena, bi talde zaharrenen arteko aldea ez baita esanguratsua atera ($p > 0,9$).



2. Grafikoa. Konplexutasun narratiboa (A-17), adin-taldearen eta ingurune soziolinguistikoaren arabera.

Ingurune soziolinguistikoaren arabera aldeak txikiak izan dira, lagin osoa kontuan hartuz geroz, baina 5 urteko taldean ia bi puntuko aldea, ingurune euskaldunetako aldekoa, estatistikoki esanguratsua atera da, eta efektua handikoa, gainera ($p = 0,38$; $\eta^2 = 0,27$).

6. Eztabaida eta ondorioak

Lagin honetako ahozko kontaketa MAIN prozedura zehatza jarraituta lortu dira, desberdina dena ohiko kontasaietakoekin, baina 72 kontalarientzako berdintsua izan dena. Narrazioaren ebaluaketa, hiru neurgai zehatzetan oinarritu dena, osoa ez dena, agian onena ere ez, baina haur euskaldunen garapena neurtzeko prozedura jakin baten baliagarritasuna ikusteko hurbilketa egokitzat jo dugu: Ipuin-kontaketa ebaluaketa testuinguru batean gauzatu da, hizkuntza-ariketa saio luzeago baten azken ariketa bezala. Hurrena, kontaketa-entzulearen errola ez da hartzaile soilarena izan, entzule-ebaluatzailearena baizik, haur batzuek amaieran egindako galderak iradokitzen duen bezala (“ondo egin al dut?”). Kontaketa-proposamena ere oso mugatua izan da, gaiaren eta luzeraren aldetik (sei irudiko hiru gertaera). Horrelako testuinguruak sormenerako tarte txikia uzten dio kontalariari, eta, baita ipuin-kontaktetan ohikoak diren elementu narratibo eta hizkuntza baliabideei ere. Ondorioz, esan daiteke lortutako ahozko testuak hurbilagokoak direla linealki antolatutako gertaera sekuentzia batetik errelato laburretik, entzulearengan emozioak edota atsegina pizteko helburuarekin sortutako narrazio batetik baino. Muga horiek denak kontuan izanda ere, prozedura honekin jasotako ahozko ipuinen laginak haur euskaldunen kontaketa osagai jakin batzuen neurketa sendoa egiteko aukera paregabea eskaini du.

MAIN euskaldunarekin 4 urtetik 8 urtera bitarteko 72 haurren ahozko testu narratibo korpus sendoa osatu da, aukera eman duena, lehenengo aldiz, ipuin kontaketa hiru mailatako ebaluaziorako neurgai zehatzen erabilgarritasuna probatzeko: kontalariaren

autonomi narratiboa, ahozko kontaketa-jardueraren luzera (hitz-kopurua) eta sortutako ahozko testuaren konplexutasun narratiboa (A17). Hiru neurgai horiek ez dira literaturan aztertu izan diren neurgai bakarrak, eta ez datoz bat MAIN tresnakoekin ere. Hautua gure erabaki metodologikoa izan da, haur euskaldunen garapena neurtzeko material eta prozedura hauen erabilgarritasuna aztertzeko lehen hurbilketaren barruan. Lehenengo aldia da euskarazko ahozko ekoizpenak ebaluatzeko hiru neurgai horiek batera erabiltzen direna, eta oker ez bagaude aurrenekoa, MAIN tresna erabilitako hizkuntzen artean ere. Hiru aldagai horietan adinak eta ingurune soziolinguistikoak haurren ekoizpenetan duten eragina ikusteko aukera eman dute, gainera. Orokorrean, adinak eragina duela ikusi da, eta oso modu berdintsuan hiru neurgaietan: bost urteko haurrek autonomia txikiagoa, laguntza/bultzagarri behar handiagoa erakutsi dute, nabarmen, 6 eta 7 urteko haurrek baino, eta kontaketek luzera eta konplexutasun txikiagoa erakutsi dute 5 urtekoen kontaketek 6 eta 7koen baino. Ingurune soziolinguistikoa, berriz, ez da esanguratsua atera lakin osoan eta ezta 6 eta 7 urteko taldeetan ere, aldiz bai atera da esanguratsua, eta efektu handikoa gainera, 5 urteko taldean. Jauzi nabarmena erakutsi dute neurketa hauek 4-5 urteko haurren eta 6-8 urte bitarteko haurren kontaketen artean, handik aurrerako bi adin-taldeen artean ikusgai ez dena. Ez daukagu azalpen argirik horretarako oraindik, baina haur hezkuntzatik lehen hezkuntzarako bidean gertatzen den aldaketa handi baten adierazle baten aurrean gaudela pentsarazten digu, batetik haurrek hizkuntza mailan eta maila kognitiboan ematen duten urrats handiaren adierazgarri dirudite ipuinen hiru neurgaietan aurkitutako aurrerapauso handiek. Bestetik, ingurune soziolinguistikoaren eragina, ikusgarria dena 4-5 urteko haurren artean, 6 urtetik gora apaldu egiten dela iradokitzen dute emaitzek. Ingurune euskaldunekoan eta ez euskaldunekoan emaitzak 6-8 urtekoen artean berdintsuak izateak berdintze hori D ereduko eskolaren lorpenetako bat dela pentsarazten du.

Maila desberdinetako trebezien adierazgarri diren hiru neurgai menpekoetan adinak eta ingurune soziolinguistikoak norantza bereko eragina izateak, hiru aldagaiek haur euskaldunen kontaketak ebaluatzeko indarra dutela erakusten du. Lan txiki hau egitasmo luzeago baten hasiera besterik ez da, eta Jon Casenave kideari eskaini nahi diogu.

Erreferentzia bibliografikoak

- Aksu-Koç, Ayhan. 2010. Normal language development in Turkish. In Seyhun Topbaş & Mehmet Yavaş (arg.), *Communication Disorders in Turkish in monolingual and multilingual settings* (pp. 65-104). Bristol: Multilingual Matters.
- Alvarado, Mónica, Calderón, Gabriela, Hess, Karina & Vernon, Sofia. 2011. Historia y perspectivas teóricas sobre la adquisición de la lengua oral y escrita en los años escolares. En Karina Hess, Gabriela Calderón, Sofia Vernon, & Mónica Alvarado (Coords.). *Desarrollo lingüístico y cultura escrita: puntos, acentos, historias, metáforas y argumentos* (pp. 5-26). México: Porrúa-UAQ.
- Barreña, Andoni, García, Iñaki, Ezeizabarrena, Maria José, Almgren, Margareta, Arratibel, Nekane, Olano, Idoia, Barnes, Julia, Petuya, Alazne & Colina, Amaia. 2008a. *MacArthur-*

- Bates komunikazio garapena neurtzeko zerrenda. Euskarara egokitua. Erabiltzai- leentzako gida eta eskuliburu tekniko.* UEU
- Barreña, Andoni, Ezeizabarrena, Maria José, & García, Iñaki. 2008b. Influence of the linguistic environment on the development of the lexicon and grammar of Basque bilingual children. In Carmen Pérez-Vidal, Maria Juan-Garau y Aurora Bel (arg.) *A Portrait of the Young in the New Multilingual Spain* (pp. 86-110). Multilingual Matters.
- Barriga, Rebeca. 2002. *Estudio sobre habla infantil en los años escolares. "Un solecito calentote"*. El Colegio de México.
- Bilbao, Lorea. & Ocio, Begoña. 2005. Abilezia diskurtsiboen bereizketa, 9/10 urteko haurrengan. In Ines García-Azkoaga & Itziar Idiazabal (arg.). *Euskal testuen azterketa eta euskararen irakaskuntza. Ikastaria 14*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Bronckart, Jean-Paul. 1996. *Activité langagière, textes et discours. Pour un interaccionisme socio-discoursif*. Lausanne. Delachaux & Niestlé.
- Diaz de Gereñu, Leire. 2016. *Jendaurreko konta-saioa: gertakari sozio-diskurtsiboa eta testu-genero berezitua* (Doktoretza Tesia) Leioa: EHUko Argitalpen Zerbitzua- Servicio Editorial UPV. ISBN: 978-84-9082-381-1
- Dolz, Joaquim, Pasquier, Auguste & Bronckart, Jean-Paul. 1994. L'acquisition des discours: emergence d'une compétence ou apprentissage de capacités langagieres?. *Etudes de linguistique appliquée*, 92. 23—37.
- Duguine, Isabelle & Köpke, Barbara. 2018. Processing Strategies Used by Basque-French Bilingual and Basque Monolingual Children for the Production of the Subject-Agent in Basque. *Linguistic Approaches to Bilingualism* · DOI: 10.1075/lab.16047.dug
- Ezeizabarrena, Maria José, Manterola, Ibon & Beloki, Leire. 2009. Euskara H2 goiztiarraren ezaugarrien bila, adizkiak eta gramatika-kasuak haurren ipuin-kontaktetan. *Euskera* 54 (2)1: 639-681.
- Garaio, Beñat. 2022. *Euskara eleaniztasunean irakasten duten eskolak aztergai D ereduko Gasteizko bi eskolen indarguneak identifikatzen* (Doktoretza Tesia). Leioa: EHUko Argitalpen Zerbitzua- Servicio Editorial UPV
- Gagarina, Natalia, Daleen, Klop, Kunnari, Sari, Tantele, Koula, Välimaa, Taina, Balëitüniënë, Ingrida, et al. 2012. MAIN Multilingual Assessment Instrument for Narratives. *ZAS papers in linguistics* 56. Berlin: ZAS.
- Gagarina, Natalia, Daleen, Klop, Kunnari, Sari, Tantele, Koula, Välimaa, Taina, Bohnacker, Ute & Walters, Joel. 2019. MAIN: Multilingual Assessment Instrument for Narratives –

Revised. Materials for use. *ZAS Papers in Linguistics*, 63.

García-Azkoaga, Ines & Díaz de Gereñu, Leire. 2021. Mintzaira-jarduera eta generotasuna: narrazio-egintza adibide. In Leire Díaz de Gereñu; Ibon Manterola & Ines M. García-Azkoaga. *Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu*. EHU-UPV 143-162.

García Azkoaga, Ines, Idiazabal, Itziar, Larringan, Luis Mari. 2009. Contar el mismo cuento a los 5 y a los 8 años. Una explicación desde la perspectiva del interaccionismo sociodiscursivo. *Estudios lingüísticos. Linguistic Studies*, N° 3, julio 2009, 211-227 ISSN 1647-0346.

García Azkoaga, Ines, Idiazabal, Itzia & Larringan, Luis Mari. 2015. "Narratze trebetasunen garapena. Ipuin bera eta ume bera hiru adin ezberdinetan". In Ezeizabarrena, Maria José & Ricardo Gómez, (arg.) *Eridenen du zerzaz kontenta. Saillkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua, Bilbo. ISBN: 978-84-9860-910-3, 319-336.

Gathercole, Virginia M. & Thomas, Enlli M. 2009. Bilingual first-language development: Dominant language take over, threatened minority language take-up. *Bilingualism: Language and Cognition*, 12(2), or. 213-237. <https://doi.org/10.1017/S1366728909004015>

Gobierno de Navarra. 2020. *Datos sociolingüísticos de Navarra, 2018*. Pamplona: Gobierno de Navarra, Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera.

Hess, Karina & Auza, Alejandra. 2013. Las narraciones como una ventana para mirar el lenguaje y la cognición de los niños. En Alejandra Auza & Karina Hess (Eds.) *¿Qué me cuentas? Narraciones y desarrollo lingüístico en niños hispanohablantes*, (pp. 7-26) México-Querétaro: DeLaurel.

Huarte, Maider. 2020. Euskararen jabekuntza testuinguru soziolingüistiko ezberdinetan: zer esaten diguten haurren testuek kasu gramatikalen erabilerari buruz. *Fontes Linguae Vasconum (fLV)*, 134, 415-438. <https://doi.org/10.35462/flv134.5>

Lascano, Beñat. 2016. *Étude du bilinguisme Basque-Français chez des élèves suivant une scolarité primaire immersive en Basque*. (Doktoretza Tesia). Leioa: EHUko Argitalpen Zerbitzua-Servicio Editorial UPV. <http://hdl.handle.net/10810/20050>

Manterola, Ibon. 2010. *Euskarazko murgilketa Haur Hezkuntzan: euskara-gaztelanialelebitasunaren azterketa. Ahozko ipuinen analisi diskurtsiboa eta didaktikoa*. (Doktorego Tesia). Leioa: EHUko Argitalpen Zerbitzua- Servicio Editorial UPV.

Manterola, Ibon, Idiazabal, Itziar. & Almgren, Margareta. 2013. Basque L2 development in immersion school settings, *International Journal of Bilingualism*, 17: 375-391 ISSN:1367-0069.

- Manterola, Ibon & Almgren, Margareta. 2016. Revitalisation de la langue basque à travers la scolarisation par immersion dans un contexte non-bascophone. In Philippe Blanchet & Martin Kevran (arg.), *Langues minoritaires locales et éducation à la diversité*. 87-102. ISBN: 978-2-343-08249-3.
- Melzi, Gigliana. 2008. Parent-child narratives. In Allyssa McCabe, Alison L. Bailey & Gigliana Melzi (arg.), *Spanish-Language Narration and Literacy: Culture, Cognition and Emotion* (pp.3-5). Nueva York: Cambridge University Press.
- Nicolopoulou, Ageliki. 1997. Children and narratives: toward an interpretive and sociocultural approach. En Michael Bamberg (Ed.) *Narrative Development: Six Approaches* (pp.179-215). Mahwah: Lawrence Erlbaum.
- Punaro, Maria Cristina. 2018. *Análisis de las estructuras narrativas de niños de habla zapoteca de la comunidad de San Blas Atempa, Oaxaca*.
- Snow, Catherine. & Imbens-Bailey, Alison. 1997. Beyond Labov and Waletzky: the antecedents of narrative discourse. *Journal of Narrative and Life History*, 7 (1-4), 197-204.
- Soziolinguistika Klusterra. 2017. *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria 2016*. Soziolinguistika Klusterra.